



EUSKAL PERPAUSEN DANTZA

Juntadura bidezko perpausak -II-

>Juntagailuak:
emendiozkoak,
hautakariak,
aurkariak.

NOLA ERABILI *Juntadura bidezko perpausak -II-*

Esku artean daukazun bideoan lau atal nagusi bereiz daitezke.

-Juntagailuak

-Juntagailuak zer diren eta nola erabiltzen diren.

-Emendiozko juntagailuak 05:47

PROPOSAMENA

Bideo-gelara jo aurretik, gida honetako *juntagailuak* eta *emendiozko juntagailuak* atalei buruzko orrialdeak ikasleei banatu, bertan agertzen diren kontzeptuak eta adibideak klasean ikusi eta zalantzak argitu.

Hori eginda bideoa ikusi.

-Juntagailu hautakariak 14:27

PROPOSAMENA

Bideo-gelara jo aurretik, *juntagailu hautakariak* atalari buruzko orrialdeak ikasleei banatu, bertan agertzen diren kontzeptuak eta adibideak klasean ikusi eta zalantzak argitu.

-1. ATAL DRAMATIKO LUZEA: OLATZ ALDATU EGIN ZAIGU.

-Gidoia irakurri, letra lodiz azpimarratutakoei arreta berezia jarritz.

-Gidoia kontakizun labur bihurtu juntagailu hautakariak kontakizunean txertatuz.

Esaterako, *Mikel eta Lorea kezkatuta daude Olatzen jarrera dela eta. Yoga edo tai-chi egiten hasi omen da eta lehen baino lasaiago dabil. Gainera, lehen trenez edo autobusez joaten zen lanera; orain, ordea, oinez. Hogei edo hogeita bost minutu egiten omen ditu oinez etxetik lantegira.*

-Idatzitakoa irakurri kideen aurrean.

-2. ATAL DRAMATIKO LUZEA: ZALANTZA SALTSA.

-Gidoia irakurri, letra lodiz azpimarratutakoei arreta berezia jarritz.

-Gidoia kontakizun labur bihurtu juntagailu hautakariak bertan txertatuz. (Ikus aurreko adibidea).

-Idatzitakoa irakurri kideen aurrean.

Hori guztia egin eta gero, bideoa ikusiko dugu. Dramatiko luzea ez ezik, beste atalak ere ikus ditzakezue birpasa modura.

-Juntagailu aurkariak 24:37

PROPOSAMENA

Bideo-gelara jo aurretik, *juntagailu aurkariak* atalari dagozkion orrialdeak ikasleei banatu, bertan agertzen diren kontzeptuak eta adibideak klasean ikusi eta zalantzak argitu.

Hori eginda bideoa ikusi.

EUSKAL PERPAUSEN DANTZA

3. kapitulua

Juntadura bidezko perpausak-II-

Juntagailuak hitz solteak dira, ez atzizkiak.

eta baina nahiz baizik edota ala ezpada baino zein

Juntagailuak, normalean, elkartzen dituen osagai bien juntagunean hartzen du lekua.

Azterketa zaila izan da, **baina** gainditu egin dut.

Juntadurak, maila bereko osagaiak elkartzen ditu

Trenez edo autobusez joan zaitezke.
(*instrumentalak*)

Ez dakit **egia** ala **gezurra** den.
(*izenak*)

Juntagailuak, normalean, ezin dira metatu.

Miren, Ane, Jon, Felipe **eta** Anton egon dira.

Juntagailuek, maiz, perpausak ez ezik, sintagmak ere junta ditzake.

Arrosa ekarri duen gizona
eta abestu duena pertsona bera dira.

Larunbatean lagunekin ibiltzea gustatzen zait
eta igandean etxean egotea, lasai-lasai.

Orain juntagailu guztiak hartu eta hiru multzo egingo ditugu. Batean, emendiozko juntagailuak kokatuko ditugu; beste batean, juntagailu hautakariak; eta, hirugarrenean, juntagailu aurkariak.

LOREA	Markel, Ander eta Eider etxean geratuko dira.
MIKEL	Etxean? A zer plan aspergarria!
LOREA	Horixe bera pentsatu dut nik.
MIKEL	Plan bat daukat. Entzun, ea zer iruditzen zaizun.
LOREA	Bota.
MIKEL	Kirol-jantziak jantzi eta kiroldegira joango gara. Kiroldegian igeri lehenengo, korrika gero eta, bukatzeko, saunan sartuko gara. Zer iruditzen zaizu?
LOREA	Primerako plana iruditzen zait. Kiroldegitik ateratakoan, janari-dendara joango gara eta ogia, urdaiazpikoa eta arrain fresko-freskoa erosiko ditugu.
MIKEL	Ño! Horri esaten diot nik plana biribiltzea. Goazen.
LOREA	Beraz, igeri, korrika eta sauna; bainu-jantzia igerilekurako, galtza motzak, elastikoa eta kirol-oinetakoak korrika egiteko eta xaboia dutzatzeko.
MIKEL	Eta ez ahaztu kiroldegiko bazkide-txartela eta dirua erosketak egiteko.

Emendiozko juntagailuek, gainerako juntagailuek bezala, maila bereko osagaiak lotzen dituzte, baina osagaiak batuz. Emendiozko juntadura, normalean, *eta* juntagailuaren bidez gauzatzen da. *eta* juntagailua, salbuespenak salbuespen, azken juntagaiaren aurrean kokatzen da.

Mikel parkera joan da eta Olatz etxean gelditu da.

Mikel parkera joan da. Perpaus osoa da. Eta *Olatz etxean gelditu da* ere bai. Beraz, *eta* juntagailuak bi perpausa lotu ditu.

Olatzen aitona eta Lorearen amona lehengusuak dira.

Olatzen aitona, izen-sintagma bat da; eta *Lorearen amona* beste bat. Kasu honetan, beraz, *eta* juntagailuak sintagmak lotu ditu.

Lorea eta Mikel pozik daude.

Lorea sintagmaren osagaietako bat da eta *Mikel* beste bat. Beraz, *eta* juntagailuak sintagma baten osagaiak ere lot ditzake.

Ikus daitekeenéz, era guztietako juntagaiak elkar ditzake *eta* juntagailuak. Juntagaiak zenbat-nahi izan daitezke. Hori bai, bi baino gehiago badira, *eta* juntagailua azken bi juntagaien artean kokatzen da. Beste juntagailuak koma bilakatzen dira.

Etxeko atea, leihoa, argia, tximinia eta zorua konpontzeko daude.

OLATZ	Kaixo, Mikel. Egunon. Zertan ari zara?.
MIKEL	Josurentzat eta Begoñarentzat paketeak prestatzen.
OLATZ	Josu eta Begoñarentzat? Zer dela eta?
MIKEL	Ez al dakizu zer egun den gaur?
OLATZ	Hau misterioa, Mikel. Ez, ez dakit zer egun den.
MIKEL	Gaur Josu eta Begoñaren urtebetetze eguna da.
OLATZ	Arranopola! Egia! Erabat ahaztuta neukan.
MIKEL	Zuk eta Loreak ez dakit zertarako daukazuen burua.
OLATZ	Kontxo, Mikel. Sermoia bota behar al didazu?
MIKEL	Ez. Ea lagundu. Zuk eta nik, biok egingo ditugu paketeak.
OLATZ	Ongi da. Zer egin behar dut? Boligrafoak kaxa honetan eta hartan sartu behar al dira?
MIKEL	Itxaron. Boligrafo horietako batekin, horietako beste batekin eta horietako arkatz batekin egingo dugu oparia. Boligrafoak eta arkatzak kaxa batean sartuko ditugu, eta kito.
OLATZ	Ea ulertu dudan, bi boligrafo eta arkatz batekin egingo dugu oparia.
MIKEL	Bai, horixe. Oso ondo ulertu duzu. Hasi lanean.

Kasu-marka bereko bi izen-sintagma eta juntagailuaren bitartez elkartu nahi baitugu, aukera bi ditugu: sintagma bakoitzak bere kasu markarekin esatea ala sintagma biak elkartu eta kasu-marka amaieran eranstea.

Josu eta Begoñarentzat? Zer dela eta?

Bi aukerak balekoak dira baina badira salbuespenak. Izen- sintagmaren ardatza pertsona-izenordea bada, sintagma osorik esan behar da.

Zuk eta nik, biok egingo ditugu paketeak.

Anderrek eta Kristobalek egin dute.

Mirenek ogia eta urdaiazpikoa ekarri ditu.

Markel eta Oihanari asko gustatu zaie.

Egin dute, ekarri ditu, gustatu zaie; badirudi *eta* juntagailuaren bidez elkartutako juntadura pluraltzat hartu behar dela, osagai biak singularrean egon arren. Hala ere, badira hainbat salbuespen. Ikus ditzagun.

OLATZ	Itziarri deitzea eta haren etxera joatea pentsatu dut.
LOREA	Itziarri? Zer dela eta?
OLATZ	Ez dakit, neska. Lasaitasuna behar dut.
LOREA	Kontxo. Ongi da. Eta zer du bada Itziarrek?
OLATZ	Ez jarri horrela, Lorea. Aire berri bila noa.
LOREA	Zer nahi duzu nik esatea. Ez zait ondo iruditzen zu hara joatea eta ni hemen uztea, bakar-bakarrik.
OLATZ	Itziarrek beti esan dit bakarrik joateko eta ez eramateko lagunik.
LOREA	Gaiztoa eta maltzurra izan behar da hori esateko.
OLATZ	Baina, Lorea dena eramaten duzu muturrera. Nik nahiago nuke zurekin eta Mikelekin joatea, baina Itziar horretan oso zorrotza da.
LOREA	Zeuk ikusi, Olatz. Hori eta bestea esango didazu Itziarri buruz, baina hark ez dauka inolako errurik zure erabakian.
OLATZ	Demontre, Lorea! Benetan zara egoskorra. Kito! Erabaki dut. Geratu egingo naiz.
LOREA	Ez, ez, ez, joan, joan, joan...

Juntagaiak perpaus osoak badira, juntadura ez da pluraltzat hartzen; hau da, aditza singularrean jartzen da.

Itziarri deitzea eta haren etxera joatea pentsatu dut.

Juntagaiak sinonimoak edo oso antzekoak badira, ez dago emendiorik; izan ere, bigarren osagaiak lehenengoa osatzera dator. Horrelakoetan zilegi da juntadura pluraltzat ez hartzea.

Gaiztoa eta maltzurra izan behar da hori esateko.

Orain arte ikusitakoez gain badira *eta* juntagailuaz osatutako zenbait esapide maiz komunztadura singularrean egiten dutenak.

Hori *eta* bestea esango **didazu** Itziarri buruz, baina hark ez dauka inolako errurik zure erabakian.

Juntaduran aldez aurretik aipatutako osagaiak, normalean, ezabatu egiten dira. Horrek zenbaitetan anbiguotasunak sor ditzake, *eta* testuinguruaren laguntzaz argitu behar da.

Nire gelako ikasleak *eta* zure gelako ikasleak autobus batean datoz.

Nire gelako ikasleak *eta* zure gelakoak autobus batean datoz.

Lorea gaur etorriko da *eta* zu bihar etorriko zara.

Lorea gaur etorriko da *eta* ni bihar.

juntagailu hautakariak

00:00

Juntagailu hautakariak juntagai bi edo gehiagoren arteko aukera edo hautaketa adierazteko erabili ohi ditugu. Euskaraz juntagailu hautakariak honako hauek dira: *edo*, *edota*, *ala*, *nahiz eta zein*.

edo

edo juntagailu hautakariak aldaera bakarra dauka: *edo*, *eta* maila guztietako osagaiak elkar ditzake: perpaus osoak, izen-sintagmak, aditzondoak, izenondoak *eta* abar. Nolanahi ere, juntagaiek kategoria bera izan behar dute beti.

OLATZ ALDATU EGIN ZAIGU

- LOREA.** - Zein nahiago duzu, Mikel?
- MIKEL** Eh? A! Berdin dit: bata edo bestea.
- LOREA** Bata gorria da, bestea urdina.
- MIKEL** A! Gorria, gorria nahiago dut.
- LOREA** Aizu, Mikel, azken aldian xeblebre samar dabil Olatz; ez al duzu uste?
- MIKEL** Bai, yoga egiten hasi denetik...
- LOREA** Yoga egiten du, ala?
- MIKEL** Bai, beno, yoga edo tai-txi edo horrelako zerbait.
- LOREA** Orain ulertzen dut. Horregatik dabil hain lasai.
- MIKEL** Ez dakit lasaitasuna edo lelotasuna den, baina ez du hitz bat bestea baino altuago egiten.
- LOREA** Gainera, lehen, autobusez edo trenez joaten zen lanera; orain, oinez joaten da.
- MIKEL** Oinez? Ezinezkoa da.
- LOREA** Sinets ezazu, Mikel, hogeit edo hogeita bost minutu egiten ditu oinez etxetik bulegora.
- MIKEL** Hogeit edo hogeita bost minutu oinez, Olatzek?
- LOREA** Bai, hogeit edo hogeita bost minutu egiten ditu joateko, eta beste hainbeste itzultzeko. Nork esango luke, e? Mikel?
- MIKEL** Beno, ibiltzea ona da osasunerako.
- LOREA** Ibiltzea bai, baina hainbeste ibiltzea, ez dakit.

Juntadura guztietan bezalaxe, honetan ere alde zurririk aipatutako informazioa isilpean uzteko joera dago; baina, oro har, juntagaiak sintagmak badira, sintagma osoak, kasu-marka eta guzti, elkartzeko joera izaten da.

OLATZ	Biharko goiza etxean edo bulegoan emango dut.
MIKEL	Beraz, bihar goizean, etxera edo bulegora deituko dizut.
OLATZ	Bai, bihar goizean, etxean edo bulegoan aurkituko nauzu.
MIKEL	Ongi da batera edo bestera deituko dizut, Olatz

Zenbaitetan, hiztuna zalantzatan dagoenean, nola jarraitu ez dakienean, edota informazioa oso fidagarria ez dela adierazi nahi duenean, azken juntagaia ezabatu egiten da.

LOREA.-	Kostatzen zaio iristea Olatzi.
MIKEL.-	Bai. Lagunen batekin edo elkartzeko zen. Badakizu nolakoa den.
OLATZ.-	Hitz egin al duzu Lorearekin?
MIKEL.-	Ez, oraindik ez, ez dut astirik izan.
OLATZ.-	Ez duzula astirik izan? Noiz hitz egingo duzu?
MIKEL.-	Ez dakit, bada. Bihar edo hitz egingo dut Lorearekin.
LOREA.-	Autobus-gidariak lanuztea iragarri dute biharko.
OLATZ.-	Biharko? Ezinezkoa da. Nola joango gara Etxarrira?
LOREA.-	Trenez edo joan beharko dugu.

edota

Juntagailu hau *edo* eta *eta* juntagailuak elkartetik dator. *Edo* juntagailuaren distribuzio berbera daukala esan daiteke. Maila guztietako juntagaiak elkar ditzake. Adierazpen-perpausetan zein galde-perpausetan erabil daiteke. *Edo* juntagailuaren balio berberak har ditzake. Maiz, eskuineko aditza ezabatu egiten da. Gehienetan azken osagaiaren aurrean agertzen da. Batzuetan, ordea, juntagai bakoitzaren aurrean jartzen da eta balio banakaria hartzen du.

ala

Juntagailu hautakari horrek aldaera bakarra dauka: *ala*, eta lehenago ikusi ditugunak bezala, maila guztietako osagaiak elkar ditzake. Galde-perpausetan edota zehar-galderetan erabili ohi da maizenik, eta gehien-gehienetan elkarren baztergarri diren aukerak adierazteko.

ZALANTZA SALTSA

- MIKEL** Orduan, zer? Zure etxera **ala** nirera joango gara?
- OLATZ** Niri berdin dit.
- MIKEL** Niri ere berdin dit.
- OLATZ** Zure etxera **edo** nire etxera joan gaitezke.
- MIKEL** Ongi da. Etxera deituko dugu, norbait dagoen **ala** ez jakiteko.
- OLATZ** Nork deituko **du** lehenengo, zuk **ala** nik?
- MIKEL.-** Neronek deituko dut lehenengo, ez bazaizu inporta.
- OLATZ.-** Ez, ez dit inporta. Deitu, deitu.
- MIKEL** Aita etxean dago. Zurean ba al dago norbait?
- OLATZ** Amari hondartzara joango dela **edo**, entzun diot. Deituko dut badaezpada.
- OLATZ** Nire etxean ez dago inor.
- MIKEL** Zure etxera joango gara, beraz.
- OLATZ** Ongi da. Zerbait erosi beharko dugu jateko, ezta?
- MIKEL.-** Ados. Zer eramango dugu ogitarteko bat **ala** pizza bat, **ala** bakoitzetik bana?
- OLATZ.-** Nik nahiago dut ogitartekoa. Zuk pizza nahiago duzu **ala**?
- MIKEL.-** Ez, ez, ez. Nik ere nahiago dut ogitartekoa. Beraz, pizzarik ez. Bi ogitarteko eta kito. Nor joango da dendara, zu **ala** ni?,
- OLATZ.-** Eta edateko, zer eramango dugu?
Limoia, laranja **edo** ura?
- MIKEL.-** Limoia nahiago dut. Zuk?
- OLATZ.-** Ura.
- MIKEL** Olatz, ogitartekoan zer jarriko duzu urdaiazpikoa **edo** beste zerbait?
- OLATZ.-** Urdaiazpikoa, noski.

Numero-komunztadurari dagokionez, *alaren* erabilerak ez du aparteko arazorik sortzen; normalean aditza singularrean jokutzen da.

Nork deituko du lehenengo, zuk **ala** nik?

Pertsona-komunztadurari dagokionez, honako hau esan behar da: galdetzaile batekin erabiltzen bada, aditza hirugarren pertsonan jokutzen ohi da.

Nor joango da dendara, zu **ala** ni?

Normalean, *ala* juntagailuaren bidez sortutako juntaduretan ezabaketak eskuineko juntagaian gertatzen dira.

Urdaiazpiko garestia erosiko duzu **ala** merkea?

Ala juntagailuz egindako perpausaren azken juntagaia ezabatu egiten da askotan. Egitura hori harridura edota zalantza adierazteko erabili ohi da. Kasu horietan *ala*-ren aurretik koma jartzen da.

Zuk pizza nahiago duzu, **ala**?

nahi(z) / zein

nahiz eta zein juntagailu hautakariak oso antzekoak dira. Normalean perpausak baino txikiagoak diren juntagaiak lotzeko erabiltzen dira: izen-sintagmak, adizlagunak, aditzondoak, partizipioak eta horrelakoak.

Pobre **zein** aberats, zuri **nahiz** beltz denok gara pertsona.

Gehienetan, orobatasuna adierazten dute; hau da, hiztunari berdintsu zaio bata **zein** bestea aukeratzea.

Boligrafoz **nahiz** errotuladorez egin dezakezu. Batarekin **zein** bestearekin egin balio berdintsua izango du.

Juntagaiak izen-sintagma deklinatuak badira, normalean, bietan jarri ohi da kasu-marka; hori bai, zerrendak luzeak badira, azken juntagaian bakarrik jarri ohi da.

Legebiltzarreko nahiz Artano plazako geltokian
har dezakezu taxia.

Normalean, bi juntagairen artean agertzen bada ere,
batzuetan, juntagai bakoitzaren aurrean aurki daiteke.
Horrelakoetan balio banakaria izaten du.

Nahiz igandean nahiz astelehenean joan zintezke.

juntagailu aurkariak 20:00

Juntagailu aurkariak osagai biren arteko aurkaritza edo kontrakotasuna adierazteko erabili ohi ditugu. Euskaraz bi aurkaritza-mota dauzkagu, aski desberdinak.

Ez da garaia, baina atsegina da.

Lehenengo juntagaia: *ez da garaia* eta bigarrena: *atsegina da* kontrastatuta daude, baina bigarrenak ez du lehenengoa ezeztatzen.

Ez da garaia, baxua baizik.

Kasu horretan, lehenengo juntagaiak ezeztatzen duena: *ez da garaia*, bigarrenak baieztatu egiten du: *baxua da*.

baina

Normalean, *baina* juntagailuak nolabait kontrajarrita dauden bi perpaus elkartzan ditu. Beste juntagailuek ez bezala, *baina*-k ezin du bi juntagai baino gehiago elkartu. Bigarren juntagaiaren hasieran hartzen du lekua eta, normalean, aurretik koma bat jartzen zaio.

baizik

Juntagailu hori bigarren juntagaiaren atzean jarri ohi da eskuarki.

Ez goaz Bilbora, Donostiara **baizik**.

baino

Juntagailu hori batez ere Bizkaian erabiltzen da eta *baizik* bezala bigarren juntagaiaren atzean jartzen da.

Ez dugu guregatik egiten, zuregatik **baino**.

ezpada

Juntagailu hau ere Hegoaldean erabiltzen da, bizkaieraz eta gipuzkeraz batez ere. Bigarren juntagailuaren aurrean jartzen da.

Ez da nahi ez dudalako, **ezpada** ezin dudalako.

ez baina

Bada beste egitura bat, Hegoaldean erabilia berau, aurkaritza adierazteko. Egitura horretan, *ez* partikula lehen juntagaiaren amaiera-amaieran jartzen da eta bigarren juntagaiaren hasieran *baina* juntagailua.

Mikel **ez baina** haren anaia etorri da.

Limoizkoa **ez baina** laranjazkoa nahiago dut.

Zuzendariarekin **ez baina** idazkariarekin hitz egin ahal izan dut.

Liburuak

ZUBIRI, Hilari ; ZUBIRI, Entzi:
Euskal Gramatica Osoa,
Didaktiker, Bilbo, 2000.

ZUBIZARRETA, Aitor; DORRONSORO, Mikel; ZUBIMENDI, Josemari:
Gramática Gaitasuna Lantzen,
Euskara Zerbitzua, Glotodidaktika-lanak. Gasteiz, 2000.

EUSKALTZAINDIA:

Euskaltzaindiaren arauak,
Euskaltzaindia, Bilbo, 1994-2000.

Orri elektronikoa

www.hiru.com